txintxarri

2022-10-14 OSTIRALA / 1601. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA WWW.TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

Sentimenduak dantzan

Ges aseguruak

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

Euskararen Maratoiarekin bat!
sentitu, prestatu ... eta ekin!

✓Etxeko aseguruak
✓Komunitateak
✓Kotxeak
✓Dendak
✓Aurrezkiak
✓Istripuak
✓Enpresak
✓Bizitza aseguruak
✓Eta gehiago!

Pablo Mutiozabal kalea 2 - 1. solairua, 8. bulegoa - Tel. 943-36 58 99 - *cristina_arteaga@ges.es* - Lasarte-Oria

Euskararen 1. Maratoirako oholtza prestatzeko lanak, 1986an. TXINTXARRI

Euskararen 2. Maratoia dinamizatu zuen zortzikoteko kideak, 1988an. TXINTXARRI

Euskara plazara, hamargarrenez

Sei urte eta gero, egun gutxi barru murgilduko da Lasarte-Oria bere festa kuttunenetako batean, Euskararen Maratoian. Hamargarren aldia izango da aurtengoa, izen eta formatu berriekin, baina betiko esentziarekin: gure herrian euskaraz bizitzea posible dela sentiaraztea

Txintxarri

Hamar, bederatzi, zortzi... Herri honetakoak garenoi gehien gustatzen zaigun atzerako kontaketa hasi da, Euskararen Maratoiak Okendo plaza kolorez bete aurreko egunak zenbatzeko hori. Hamar atzamarrak zerura altxa eta Lasarte-Orian euskaraz bizitzea posible dela eskatu eta erakusten hasteko zortzi egun besterik ez dira falta gaurtik kontatzen hasita, hilak 14. Itxaronaldia ohi baino luzeagoa izan da oraingoan: ez dira lau urte izan, sei baizik, pandemiak eragindako etenaldia tarteko. Horrek ez du lasarteoriatarren grina herdoildu ordea, ezta antolatzaileena ere: 40 ordu euskaraz egitearekin nahikoa ez, eta 42 eguneko ariketa prestatu dute Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak: Euskararen Maratoialdia, betiko Maratoia eta azaroaren 18an hasiko den Euskaraldia batuko dituena. Hiru fase izango ditu: Sentitu, hilaren 22an eta 23an, euskaraz gehiago hitz egiteko motibazio kolpea emateko; Prestatu, hilaren 24tik azaroaren 17ra, hizkuntza asertibitatean kolektiboki entrenatzeko; eta Eta ekin, azaroaren 18tik abenduaren 2ra, euskaraz hitz egiteko garaia, Euskal Herri osoan egingo den Euskaraldiak iraun bitartean.

Zoro zoragarri batzuek 1986an bota zuten erronka eta Euskararen 1. Maratoia aurrera eraman zuten. Egitasmoaren arrakasta ikusita, 1988an egin zuten bigarrena, are eta jende gehiago bildu zuena Okendo plazan. Arrakastatsua bai, baina nekagarria ere bai, eta antolatzaileek erabaki zuten maiztasuna luzatzea: ordutik aurrera, lau urtean behin elkartuko ziren Okendon, eta hala egin zuten 1992ko Maratoitik 2016kora arte. Azken horretan ez ziren 40 ordu euskaraz egitearekin konformatu: *Baietz 40 egun euskaraz!* erronka luzatu zieten herritarrei, eta hori izan zen gaur egun Euskaraldia izenez ezagutzen dugun ariketaren ernamuina.

Galdera lehiaketa

Esan bezala, egun gutxi batzuk besterik ez dira falta Euskararen 10. Maratoialdia hasteko. Motorrak berotze aldera, galdera lehiaketa bat prestatu du TXINTXARRI-ko lantaldeak. Gaurtik (hilak 14) hasita, hilaren 23ra arte izango duzue parte hartzeko aukera. Irabazleak bi menu dastatuko ditu Casa Humada-Txitxardin jatetxean.

Orain arteko Maratoi denetan bezala, ez dira faltako oholtza gaineko ikuskizunak nahiz otordu jendetsuak. TXINTXARRI

Gero eta gutxiago falta da Okendo plazak berriz ere itxura hau izateko. Irudian, 2016ko Maratoiko azken ordu aldaketa. TXINTXARRI

Zortzikoteko kideak eta zenbait herritar elkartu ziren entseguan. TXINTXARRI

Prestaketa, herritarrekin batera

Hilaren 22an hasiko da Euskararen 10. Maratoialdia, larunbatez, Sentitu fasearekin. Asteburu horretan makina bat dantza eta koreografia egingo dituzte zortzikoteko kideek. Ordurako herritarrek pauso guztiak memoriaz jakin ditzaten, entsegu herrikoi bat egin zuten Okendo plazan, hilaren 6an. *Hamar atzamar* (aurtengo Maratoialdiaren abestia), *Fruta yan*, *Gas gas*, *Ahoa Bizi, Belarriak Prest!* eta beste zenbait dantzatu zituzten.

'Hamar atzamar' abestiaren letra

'40 ordu baietz' izan zen lehena,
'Baietz 40 ordu' berriz hurrena, '40
ordu errex!', hirugarrena;
Euskaraz gozatzeko,
jai bat daukagu,
euskara gozatzeko
batu gara gu,
eta kolorezko herri
baten antza du, baten antza du!

Hamar atzamar,
dantzan elkar hartuta
urrian zehar bihurri bihurtuta,
hamar gehiago da zu ere zenbatuta!

40 ordu gogoz igaroz gero,
plazerra eskuragai da egunero,
bero-bero euskaraz,
orain eta gero!
Festa hau korritzeko
modukoa da!

Bhotzetik atera
dugu plazara,
eta azkenik armairutik
geu irten gara,
geu irten gara!

Hamar atzamar,
dantzan elkar hartuta
urrian zehar bihurri bihurtuta,
hamar gehiago da zu ere zenbatuta!
Hamar, atzamar!

Koreografia ikasteko, eskanea ezazu QR kode hau

Elkartasuna josi, elkarlanean

Herriko kideak dituzten hamahiru elkarte batu egin dira Bizipoza-Maratoia egitasmoan, eta hilaren 23rako ekimenak prestatzen ari dira. Komunean dituzten helburuak lortzeko, bakoitzak bere esparruan egiten duen lana gizarteratuko dute

Kool Studioko Karmele Salsamendik, Izan Iñurriko Julene Illarramendik eta Bizipozako Leire

Maitane Aldanondo

Badator Maratoialdia. Hamaika ekimenek osatutako zerrenda luzean ezinbestekoak dira herriko eragileak eta elkarteak, euskararen bueltan batuak denak. Erakusleiho berezi horretan tarte esanguratsu bat izango du norbanako talde batek. Elkarrekin bakarrik egin dezaketena baino gehiago lortzeko gai direla sinetsita, 2020tik lankidetzan ari dira, bakoitzak bere esparruan bere alea baitakar helburu bera erdiesteko: mundua eraldatu eta bizipoza zabaldu.

Euskal Herri osoko 35 elkarte batzen ditu Bizipoza elkarteak. Guztiek gai bana lantzen dute, baina badituzte ezaugarriak amankomunean. Leire Elizegiren hitzetan, "denek izaera bereziko gaiak lantzen dituzte, baina oraindik ere zenbait eskubide betetzeke dituzten haur edo familiek osatutako elkarteak dira". Elkartuta eta elkarrekin dihardute horrela beste bozgorailu bat egin dezaketelako, xede nagusi batekin: guztiontzat beharko lukeen eskubide guztiak bermatuta egongo liratekeen herri inklusiboa eraikitzea euskaratik eta euskaraz. Horren barruan ikusi zuten Lasarte-Orian norbanako asko dabilela egitasmo horietan edo Bizipozaren parte izan gabe ere, eskubideak eta elkartasuna oinarri izanda, helburu berdinekin dihardutenak.

Ehuntzen joan diren sare honen lehen korapiloa duela bi urte egin zuten. Miren Bardaji Lesbosen (Grezia) zegoen kostalde horretara Meditarraneoko korronte eta olatuek eramandako migranteak laguntzen. Zenbait herrikidek elkartzea erabaki zuten hari babesa eman eta dirua bidaltzeko. "Poliki-poliki hasi ginen. Kultur etxean ekitaldi bat egin genuen, bakoitzak bere elkartearen zeregina azaldu zuen eta Mirenek hango egoerari buruzko bideo bat. *Flyer* batzuk ere egin genituen *Munduak guztiontzat beharko luke*

AZOKAKO POSTUETAN GALDERAK EGINEZ, OSTADARRA OSATZEN DUTENEI PUZZLE BAT EMANGO DIETE OPARI

lemapean, denok horrekin bat egiten dugulako", azaldu du Izan Iñurri-ko Julene Illarramendik. Ordutik elkarlanean jarraitu dute. "Ikusi genuen kristoren potentziala zuela herrian eta ahal ginela elkartu eta gauza gehiago egin. Oso giro ona sortu zen".

Harremanak indartu

Hamahiru elkarte batu dira hilaren 23an, igandea, aurrera eramango dituzten ekimenak prestatzeko: Txernobyl, Izan inurri, Ostadar, Kairos, Zaporeak, Aspanogi, Oporrak Bakean, Naizen, Transmaribollo, Gehitu, Beroa, Jalgune, Bizipoza-Maratoia. Baita Kool Studio eta Uxue Bereziartua *Berexi* ilustratzailea hernaniarra ere.

Salsamendik eta Berexik Izan Iñurrirekin kolaboratzen dute eta orain ere elkartekoek beraiengana jo dute. "Horrelako zerbait sortzea guri ere gustatzen zaigu eta herriarentzat baldin bada, askoz gehiago", onartu du Kool Studioko arduradunak. Elizegik eta Ilarramendik balioetsi egin dute herriko sortzaileen egiten duten lana eta Dinagu-n ehundu duten indargunea. "Herriari esan Kool hemen dagoela, izugarrizko lana egiten duela, emakume sortzaileen lanak daudela hemen...", ohartarazi du Illarramendik.

Goizean Bizipoza azoka egingo dute Okendon. Aipatu egitasmoetako batzuek euren postua izango dute eta haietan lanean ari diren lasarteoriatarrak egongo dira materiala saldu eta informazioa ematen. Helburua, "gai eta balore hauek guztiak gizarteratzea da, erdigunean jartzea", zehaztu du Elizegik. Adibidez, Bardajik Kairos proiektuarekin egindako lanaren berri emango du. Greziatik bueltan aurrera begira nola lanean jarraitu erabakitzen ari dira. Bi ildo jorratu nahi dituzte: lekuan bertan egindako lanketa eta salaketarako ikerketa, dokumentazioa... Betiere, emakumezkoek jasaten duten biolentzia politikoa ikustarazi eta ezagutarazi nahi dute. Azokara doazenentzat pare bat galdera eta datu batzuk jarriko ditu horri buruz pentsarazteko.

Iraungo dituen hiru ordu eta erdian, jarduerak ere aurrera eramango dituzte. Batetik,

Elizegik azaldu dute prestatutakoa Kool Studion egindako elkarrizketan. TXINTXARRI

Elizegik argitu duenez, joko bat osatu dute, "herritarren eta standetan gauden pertsonen arteko harremana indartzeko". Hala, azokara doazenek kartulina bana izango dute eta postuz postu joatean, mahai bakoitzean galdera pare bat egingo dizkiete elkartea ezagutzeko. Elkarrizketa horri esker kolore bat lortuko du herritarrak, kartulinan atzamarka edo zigilua jartzeko. "Ostadarra sortuko du koloreekin eta hori osatuta, puzzle bat oparituko zaio". Aldi berean, oholtzan tamaina handian jarriko dute eta parte hartuko duten talde bakoitzeko ordezkariak igotzen joango dira hura osatzera. Puzzleak Eñaut Aiartzaguena ilustratzaile iurretarrak egindako marrazki bat du.

Bestetik, elkarte bakoitzaren ilustrazio bat egin du Berexik eta banan-banan kolorezko oihal batean jarriko dute. Karmele Salsamendik josi eta globo itxurako oihalezko mural bat egingo du, 6x6 metrokoa, munduak denontzat beharko lukeela irudikatzeko. "Denak elkartuko ditut, erdian Bizipoza eta elkarte bakoitzak bere tartea izango du, guztiak batuta". Salsamendirentzat erronka da horrenbeste metrorekin lan egitea, ohituta ez baitago, eta aurrez hasi beharko badu ere, azokan ariko da puntadak ematen. 14:00etan talde argazkia egingo dute azken emaitzarekin. Ilarramendik azaldu duenez, oihala "herriarentzat" izango da, "denontzat eskuragarri" egongo da.

2020KO JAIALDIRAKO BATU BAZIREN ERE, HELBURU BERAREN ALDE LANKIDETZAN JARRAITU DUTE

Miren Bardajik (erdian, zuriz) Lesbosen zuen proiektua laguntzeko elkartu ziren. M. BARDAJI

Eskertza "ofiziala"

Horrez gain, goizean zirkuitu bat zehaztu eta maratoitxo bat ere egingo dutela aurreratu du Elizegik. Edonork parte hartu ahal izango du nahi duen moduan –makilekin, oinez, patinetan...– "gerturatzeko" kilometroak eginez. "Euskal Herria eta Lesbos, edo Melilla... Urruneko leku horiek gerturatzeko elkartasun kilometroak egin".

Arratsaldean, berriz, Bizipoza Jaia egingo dute. Amaia Agirrek aurkeztuko du eta hamar elkartek euren jarduna azalduko dute, bakoitzak bere erara. Bideotxoa, testigantza zuzena, marrazki bizidunak... Izan Iñurrik, esaterako, minbizia izan duen herrikide baten testigantza eramango du oholtzara, baita ezusteko bat ere. Bardajik, berriz, azokan bezala, Kairos egitasmoaren berri emango du, baina une berezi hori beste zerbaitetarako ere baliatu nahi du. "Gustatuko litzaiguke herri guztiari eskerrak ematea, ez dugulako aukera izan modu 'ofizialago' batean 2020an egindako jaialdia eta erakutsi ziguten babesa eskertzeko. Indar pila bat eman zigun, oso babestuta sentitu ginen eta indar pila bat eman zigun, egiten ari garena benetan garrantzitsua dela", laburbildu du herritarrak telefonoz izandako solasaldian. Justizia soziala lortzeko lanean ari dira eta aldaketa horretan jendeak ere sinesten duela ikusi zuten; baita horren aldeko ahalegina egiten dutela ere. "Badirudi han gaudenak garela zerbait egiten dugunak, baina gezurra da. Hemen jende pila bat ari da lanean, beste hainbat gauza egiten. Denon beharra dugu eta eraldaketa hau denon artean egiten dugula uste dut".

Halaber, batzen dituen filosofia hori islatzeko ilustratzaile hernaniarrak egindako irudi batekin *flyerrak* salgai jarriko dituzte 5 euroan Kool Studion, elkarteetan eta Maratoialdian aurrera eramango dituzten jardueretan. "Denok egingo dugu hau, denon artean. Ekarpen bat da hori guztia ordaintzeko", zehaztu du Illarramendik.

Elkarte bakoitzaren ardatz diren errealitateek "gizartearen erdigunera ekartzea" behar dute eta horretarako gunea izango da Maratoialdia. Parte hartzea berezia dela aitortu dute lau kideek. Elizegiren hitzetan, "euskara gure oinarrietako bat da. Gainera, lasarteoriatarrak gara elkartu eta bidea egiten ari garenak". "Zerbait goxoa sortzen da. Kristoren gogoa daukagu guztiok, Maratoiari ekarpen bat egitearren elkartu gara ere", osatu du Illarramendik azalpena. Sarea indartzen jarraitzeko aukera izatea gustatuko litzaieke, Bardajik esan bezala, "aldaketa kolektiboa" baita, eta proiektu guztiak dira beharrezkoak". Baita norbanakoak ere. "Gizarte osoak badaukagu zer egina eta zer emana, denontzako beharko lukeen herri inklusibo hori eraikitzeko, denona izango dena, ez soilik baitzuena", laburbildu du Elizegik.

"Ikuspuntu ireki batetik landuko dugu literatura"

AINTZANE USANDIZAGA ETA LIHER UNANUE GOSARI LITERARIOKO PARTAIDEETAKO BI

Irakurle txokoak gosari literarioa egingo du hilaren 22an, 09:05ean hasita. Mahai handi baten bueltan eseriko dira sortzaile, irakurle eta herritarrak, literaturaz gozatu eta hausnartzera

Iñigo Gonzalez Sarobe

Aintzane Usandizaga eta Liher Unanue izango dira partaideetako bi. TXINTXARRI

Hilaren 22an Euskararen 10. Maratoialdiaren hasiera zuzenean ikustekotan bazara, joan zaitez baraurik, 09:05etik aurrera gosari literarioa egingo baitute Lasarte-Oriako Irakurle Txokoko kideek, arte diziplina ugaritan hitzekin jolasean dabiltzan zenbait sortzaile gonbidatuta. Jarduera moderatuko duen Aintzane Usandizagarekin eta irakurle txokoko kideetako bat den Liher Unanuerekin elkartu da TXINTXARRI, egun berezi horri ekiteko egitasmo are bereziagoari buruz gehiago jakiteko.

Zer antolatu duzue hilaren 22rako?

Liher Unanue: Maratoitik proposatu ziguten zerbait egiteko aukera. Larunbat goizeko ordu tarte hori eskaini ziguten; gosaria eta literatura lotzea pentsatu genuen. Bileratxo bat egin, eta gaia ikuspuntu ireki batetik lantzearen ideia jarri genuen mahai gainean, hitzarekin jolasean dabiltzan herriko sortzaileengan pentsatzen hasita: idazleak, bakarrizketetarako testuak umoretik egiten dituztenak, kantuei letra jartzen dietenak... Planteamendu horri forma ematen laguntza behar genuenez, Aintzanerengana jo genuen.

Aintzane Usandizaga: Oso polita iruditu zitzaidan proposamena, *literatura* hitzari jartzen zaizkion zametatik (liburu potoloak argitaratzen dituztenak soilik direla sortzaile, edo gaiaz hitz egiteko seriotasunez aritu behar dela ezinbestean) harago aritzea. Hitzen bueltan aritzen diren herrikideen topaleku bat sortzea eta gosari formatua ematea oso interesgarria dela uste dut.

Nortzuk gonbidatuko dituzue?

A.U.: Pablo Barrio, Martin Anso, Idoia Garzes, Ane Labaka, Harkaitz Cano, Joseba Tapia eta Iñaki Petxarroman etorriko dira; ni haiei amuak botatzen ariko naiz. Bertaratzerik izango ez badute ere, Ixiar Rozas, Bea Egizabal eta Intza Alkainek ere parte hartuko dute. Solasaldia egiteaz gain, irakurle txokoko kide guztiak partaide izango dira. Nola? Irakurle bakoitzak sortzaile horietako baten lanaren zati bat irakurriko du, minutu batez gutxi gorabehera.

Liher, nolakoa izan da pasarte horiek aukeratzeko ariketa zuentzat?

L.U.: Konturatu gara uste genituenak baino lan gehiago egin dituztela sortzaile horiek, literaturaren ertz gehiago ukitu dituztela. Asko mugitu gaitu horrek.

Tertuliara bertaratuko diren herritarretako askori ere hori bera pasako zaie, ezta? Herrikideen sormen lana sakonago ezagutu ahalko dute.

A.U.: Prentsan ateratzen dira liburuen aurkezpen ekitaldiak-eta, baina literatura ez da hori bakarrik: hitz, narrazio eta istorioekiko kuriositatea eta maitasuna da, gauzak modu eta begirada berezi batekin kontatzea. Ezetz dirudien arren, denok dugu begirada hori. Literaturaz edozein modutara hitz egin daiteke, baita ere croissant bat jan bitartean, zergatik ez.

A zer nolako sortzaile zerrenda... Uzta ona dugu gure herrian?

L.U.: Garbi dugu bidean herritar mordoa utzi dugula, batzuen lanen berri ez dugulako, edo tertuliari forma eman ostean izan dugulako haien berri.

Ordubete inguruz ariko zarete. Nahikoa denbora al da?

A.U.: Abantaila bat dugu: puntual hasiko gara, hasiera ekitaldia eta gero. Nahiko genukeen guztia egiteko ez da aski izango, 2-3 ordu beharko genituzke gutxienez, baina eskertuta gaude eman diguten tarteagatik. Izerdi pixka bat botako dut moderatzaile lanetan, hori bai [barreak].

L.U.: Beste ikuspuntu bat emate aldera, hilaren 22an egingo duguna hazia izan daiteke egun osoko topaketa bat, jardunaldi batzuk... egiteko, aurrerago. Edo, agian, Maratoi propio bat antola genezake! Ez, hobe ezetz, jendea aspertuko genuke bestela [barreak].

Gosaldu bitartean gosaltzeko ohitura duzue zuen egunerokoan?

L.U.: Prentsari begirada bat eman bitartean gosaltzen dut nik beti, gustatzen zait hori lasai egitea, ordubetez-edo. Gosaria lotzen dut irakurtzearekin, baina gainerako otorduak ez.

A.U.: Astean zeharreko gosariak eta asteburukoak desberdintzen ditut nik. Lanera joan aurretik goiz jaikitzen naiz, baina nire burua geroago esnatzen da. Asteburuetan lasaiago nabil. Hori bai, oso gustuko dut otorduak solasaldiekin lotzea, ez dakit hitz egin bitartean eskuekin gauzak egiten ari garelako edo zer, baina uste dut askeago egoten garela une horietan, solteago.

Herritar gisa, zer da zuentzat Euskararen Maratoia?

A.U.: Umetatik festa erraldoi bat bezala bizi izan dut. Oraindik zer zen oso ongi ulertzen ez nuenean ere kontagiatu egiten ninduen giro berezi horrek, eta gogoan dut baita ere amaitutakoan uzten zizun aje sentsazio triste hori. 2004ko Maratoian zortzikoteko kide gazteena izan nintzen, eta amaierako pregoia irakurri nuen: nire bizitzako esperientzia hunkigarrienetako bat izan zen.

L.U.: Maratoia erabat lotzen dut emozioekin. Txiki-txikitatik ezagutu dugu, euskaldun garen heinean eta izan ditugun zailtasunak ikusita, euskara bultzatu eta hauspotzen ditu, eta hori gogoz bizi izan dugu.

Gogoa aipatu duzula, Liher, irakurle txokoan zabiltzatenak ikasturteari ekiteko irrikaz egongo zarete, ezta?

L.U.: Bai, hala da. Urritik abendura arteko saioak definitu ditugu orain arte: datorren asteko asteazkenean, hilak 19, Joseba Sarrionandia etorriko da, *Bizitza ez al da oso arriskutsua?* lanari buruz hitz egitera, Antonio Mercero gunera, 19:00etan. Azaroan Eider Rodriguezekin ariko gara *Eraikuntzarako materiala* aztertzen, eta abenduan, Danele Sarriugartek euskaratu duen *Hamahiru ipuin* landuko dugu.

Talde irekia al da zuena?

L.U.: Bai. Ea lortzen dugun belaunaldi gazteetako irakurleak erakartzea. Agian kanpotik ematen du talde itxi edo klub bat dela gurea, baina ez: edonor etor daiteke, oso gustura hartuko ditugu pertsona eta iritzi berriak.

Irakurri elkarrizketa osoa *www.txintxarri.eus* atarian

Eman izena urriaren 30a baino lehen:
Ttakun Kultur Elkartea | LASARTE-ORIA
kultura@ttakun.eus 943-37 14 48 • 695 78 53 89
Antolatzaileak

Artxiboko irudi honetan lasarteoriatarrak ikus daitezke duela sei urteko Euskararen 9. Maratoiko larunbat gauaz gozatzen; etenik gabe astindu zituzten gorputzak. TXINTXARRI

Festarako ere gau bikaina izango da larunbatekoa

Musika izango da nagusi larunbat iluntzetik igande goizaldera arte, baina ez hori bakarrik. Palbongoa ikuskizunak ere hartuko du Okendo plazako oholtza, eta, ziur, ederki pasako dutela ikus-entzuleek. Primiziarik ezin dugu eman, baina giro bikaina ziurtatuta egongo da

Txintxarri

Euskararen 10. Maratoiaren lehen hamabi orduak igaro ostean iritsiko da larunbat gaua, hilak 22, eta parranda ederra egiteko aukera bikaina izango dute lasarteoriatarrek. Afal aurretik, Elektropottote taldeak girotuko du iluntzea. 20:45ean hasiko da emanaldia, eta herriko kaleetan barrena ibiliko direla iragarri dute antolatzaileek. Musikarien atzetik dantzan iritsiko dira Okendo plazako karpara herritarrak, afari eder bat egiteko. Sukaldari bikainek prestatutako menu goxo bat dastatzeko aukera izango dute: perretxiko budina, masailak eta limoizko moussea; edaria, kafea eta kopatxoa ere eskainiko diete zerbitzariek. Bertara joateko txartelak asteon jarri dituzte salgai Ttakun Kultur Elkartean, baina, bertako arduradunek jakitera eman dutenez, dagoeneko amaitu dira; igandeko bazkarirakoak baino ez dira geratzen.

Afaloste berezia

Palbongoa ikuskizunak hartuko du afalostea gero. Ilusio eta ezustekoak ez zapuzteko detaile gehiegirik aurreratu ezin bada ere, zertzeladatxo batzuk eman dituzte antolatzaileek. Drag kutsua izango duela iragarri dute, eta aurreratu, zortzikoteko bi kide ariko dira aurkezle lanetan: Jagoba Mendizabal eta Enara Ieregi hain zuzen. Gonbidatu berezi bat ere izango dute beraiekin oholtza gainean; aski ezaguna omen da, baina, momentuz, hori baino ezin izan dute jakinarazi...

Hirukote horrekin zorizko jolasetan aritzeko aukera izango dute lasarteoriatarrek; horizontalean biratzen duen gurpil batek dantzan, kantuan, edota taulagaineko ikuskizunari begira jarriko ditu herritarrak, Bingoan aritzeko aukera ere eskainiko diete, erruletarekin amaitu eta gero. Giro bikaina ziurtatuta egongo da, zalantzarik gabe.

Musikariak, oholtzara

Herriko musikarien txanda izango da gero. Rukula taldea ariko da jendaurrean lehenik, eta horiek amaitu eta gero, *Inon baino alaiagoa izanen da* emanaldia hasiko da; musikari lasarteoriatarrek bat eta elkarrekin joko dute; XX eta XXI. mendeko euskal musika taldeen abestiak aireratuko dituztela nabarmendu dute antolatzaileek.

Jai giroari eusteko, erromeria talde lasarteoriatar bat igoko da oholtzara, eta goizaldea iritsi bitartean, DJ Ixter eta Fantasiaren musikarekin dantzatuko dira lasarteoriatarrak.

Indarrak errekuperatu eta igande goizari hasiera emateko gosaria deitu dute 08:05ean; salda banatuko dute Okendon bildutako gaupaseroen artean, eta, noski, garai horretarako etxetik fresko-fresko herriko plazara, Maratoiaz gozatzera gerturatzen direnen artean ere bai.

PERRETXIKO BUDINA, MASAILAK ETA LIMOIZKO MOUSSEA, LARUNBAT GAUEKO MENU EDERRA

MUSIKA EMANALDIEKIN BATERA, PALBONGOA IKUSKIZUNA ERE IRAGARRI DUTE

Galdera lehiaketa!!!! ???? ?????

Zenbat dakizu Euskararen Maratoiaz?

???? ?????

Galderak hemen:

EUSKARAREN MARATOIALDIA

hamar atzamar!
hamar galdera,
hamar erantzun!

SARIA
Hamar galderak ondo erantzuten dituztenen artean
CASA HUMADA-TXITXARDIN jatetxean bi menu

sentitu

EUSKARAREN

10. MARATOIA

ETORRI ETA SENTITU!

URRIAK 22

08:00 Txupinazoa
08:15 Hasiera-ekitaldia Okendo plazan
08:45 Diana herriko kaleetan
09:05 Idazle eta irakurleen gosari literarioa
09:15 Txokolatada
09:30 Baserritar eta artisauen azokaren irekiera
10:20 Euskal Jaiak ikastetxeekin
12:50 Baserritar eta eskulangileei aitortza
13:05 Proba mistoa
13:30 Haurren bazkaria eta bazkaloste mundiala
14:30 Bazkaria: euskal paella
14:45 Antigeno proben sekretuak argitzen
15:05 GuruBuruak
15:25 Euskaltegiak oholtzan
16:20 Musika-eskolaren emanaldia
16:40 Gazte klubekoen debatea
17:05 Pirritx, Porrotx eta Marimotots herriko elkarteekin
18:15 Haur jaioberriei ongietorria
19:05 Zunbatoia
19:45 GuruBuruak
20:15 (Min)bizi desfilea
20:45 ElektroPottotte k
21:30 Afaria
22:20 Palbongo ikuskizu sorpresarekin

URRIAK 23

00.50 Rukula
01:50 Inon baino a
02:40 Erromeria
03:25 Dj Ixter eta Dj F
08:05 Gosaria: Salda
08:15 Txistularien diana
08:30 Txaldatxurrera tx
08:40 Txekorra erretzen lehiaketa
09:05 Diafreoari buruzk
09:30 Ipar martxa ikasta
10:05 Bizipoza azoka eta erronkaren hasiera
10:30 Kirol egokitua
11:05 Kukukako haur dantzak
11:45 Xumelaren kant
Oaintxe in deu txaran batera

LASARTE-ORIA 2022ko URRIAREN 22-23tik ABENDUAREN 2ra

www.euskararenmaratoia.eus

prestatu...

urriaren 24tik azaroaren 18ra bitartean

GURUTZALDIA

ea
te kaleetan

kizuna gonbidatu

no alaiagoa izanen da

Dj Fantasia

ana
a txango historikoa
tzen eta babarrunen

uzko mahai-ingurua
astaroa
eta Lasarte-Oria-Lesbos

ua Ostadarrekin
aurren euskal

kantu-jira
rangarekin

eta ekin!

azaroaren 18tik abenduaren 2ra

EUSKARALDIA

12:10 Herri kirolak: harri-jasotzaileak eta sega erakustaldia
13:00 Herriko kirolariak oholtzan
13:45 Aiora Belartieta Kontxako bandera astintzen
14:05 Oaintxe in deu txaranga
14:30 Babarrun jana Patxi Etxeberriaren bertsoekin
15:30 Bertso-eskolako gazteak
16:05 Maratoiko kide ohien omenaldia
17:30 Bizipoza jaia
18:30 Kukuka dantza
19:05 Erromeria plaza-dantza
20:05 Ihitten
20:20 Sorgin dantza herrikoia
21:00 Txekor errea
22:05 Zapidunei aitortza
22:45 Alboka, Erketz, Zero Sette
23:35 Amaiera ekitaldia

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Ttakun Kultur Elkartea

Ane Labaka Mayoz, finalaurrekoetara

Final laurdenetan puntuazio oso altua lortuta, Bertsolari Txapelketa Nagusiko final handiaren aurreko saiora sailkatu da Ane Labaka Mayoz lasarteoriatarra. Irungo Ficoba aretoan abestuko du azaroaren 5ean, larunbatarekin, arratsaldeko bostetan

Txintxarri

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoetan ariko diren 24 bertsolarietako bat izango da Ane Labaka Mayoz herritarra. Ez zuen bere saioa irabazterik izan, baina puntuazio altua lortuta (694,5 puntu), aise sailkatu zen final handiaren aurreko saiorako. Azaroaren 5an ariko da, larunbatarekin, Irungo Ficoba aretoan, 17:00etatik aurrera. Nerea Ibarzabal Salegi, Jone Uria Albizuri, Maddalen Arzallus Antia, Miren Artetxe Sarasola eta Sustrai Colina Acordarrementeriarekin batera abestuko du.

Hauek dira finalaurrekoetara sailkatu diren gainerako bertsolariak: Alaia Martin Etxebeste, Joanes Illarregi Marzol, Haritz Mujika Lasa, Aitor Bizkarra Ruiz, Oihana Iguaran Barandiaran, Nerea Elustondo Plazaola, Julio Soto Ezkurdia, Onintza Enbeita Maguregi, Agin Laburu Rezola, Aitor Etxebarriazarraga Gabiola, Eñaut Martikorena Lizaso, Saioa Alkaiza Guallar, Asier Azpiroz Iztueta, Iñaki Apalategi Astigarraga, Aitor Mendiluze Gonzalez, Amets Arzallus Antia, Beñat Gaztelumendi Arandia eta Unai Agirre Goia.

Ane Labaka Mayoz, saio batean. TXINTXARRI

Itoizezank, Jalgin. TXINTXARRI

Irratsaio itxurako kontzertua

Antuxuna eta Patx bikoteak emanaldi berezia egin zuen Jalgi Kafe Antzokian, hilaren 8an. Beste talde batzuetan aritutako bi musikariek teknologia berriak erabiliz eta Itoiz taldearen abestiak oinarri hartuta Itoizezank ikuskizuna atondu dute. Talde entzutetsuaren unibertsoan barrena bidaia, irratsaio bezala irudikatutako esperimentu bat da.

NEURE KABUZ

MAITANE REBE

Zortzi egun besterik ez

Sei urteren ostean, iristear da Euskararen Maratoia. Hamargarren edizioa dugu aurtengoa. Lasarteoriatarrontzat oso maitea eta garrantzitsua den jaia da. 40 orduz elkartuko gara herritarrok plazan, euskaraz dantzatzera, abestera, negar egitera, gozatzera, herritik herriarentzat. Nahiko ulertezina izan daiteke herrikoa ez den norbaitentzat, baina guretzat ere ez da erraza azaltzea zer den Euskararen Maratoia, barruan dugun zeozer baita, eta horrela islatzen da aurtengo leloan, *Sentitu, prestatu...eta ekin!*, bihotz-bihotzez sentitu eta bizitzen dugun jai bat da. Ardatza euskara dela da argi dugun gauza bakarra.

Horrek orain dela urte batzuetako artikulu bat dakarkit gogora. Honela esaten zuen: "Benetan? Ostia! Lasarte-Soriakoa zara, ez dirudi". "Ez al da Lasarte apur bat txurrianoa?". Esaldi horrek buelta asko eman dizkit buruan. Duela gutxi ere herri "euskaldun" bateko festa batean, bertakoa zen herritar batekin hizketan nengoela, Lasarte-Oriako nintzela esan nion, eta zoriondu egin ninduen, herri euskaldun batean euskaldun izatea erraza baita, baina herri txurriano batean euskalduna izatea berriz?

Lasarte-Oriak herri "euskaldun" etiketa ez duela sinetsi izan dut urte askotan zehar, baina zerk egiten du herri bat euskalduna izateak eta zerk ez? Zergatik pentsatu ohi izan dut nire herria ez dela "euskalduna"? Nik ez ditut zortzi euskal abizen, lau baizik. Amaren familia izatez euskalduna da, eta aitaren familia berriz, Burgosetik etorria. Bai, Lasarte-Orian Gaztela eta Leonetik, Extremaduratik, Galiziatik, Andaluziatik eta beste hainbat tokitatik lanera etorri ziren familia ugari bizi da, eta beraz, gure familiak "euskaldunak" ez direnez, badirudi euskaldun petoak izatearen ohorea ez dugula.

Niri inork ez dit esango zer naizen eta zer senti naitekeen, eta nik argi daukat lasarteoriatarra eta euskalduna naizela. Euskaldun izatea ez da islatzen gure arbasoetan eta gure abizenetan. Euskalduna izatea bizimodu bat da, nortasun bat da, sentimendu bat da. euskalduna izatea euskara izatea da. Eta jakin dezazuen ni euskaldun naizen bezala, Lasarte-Soria ere euskalduna dela.

Zortzi egun besterik ez dira falta Euskararen Maratoierako, eta beraz, gure desberdintasun guztien gainetik, batu gaitezen eta harro senti gaitezen egin dugunaz eta garenaz. Gora Euskararen Maratoia eta gora Lasarte-Oria!

TXINTXARRI

Herriko adinekoek merezitako omenaldia jaso dute

Pandemiak bereziki eragin zien adinekoei eta ospatzeko gogoak pilatuta zituzten. Hiru urte geroago, horiek denak askatzeko nahikoa jarduera izan zituzten hilaren 1etik 9ra arte, Adinekoen Omenaldi Astean. Askotariko jarduerak aurrera eraman zituzten: bandera igotzea, Duo Imperial taldearen nahiz Biyak Bat koruaren musika emanaldiak, urrezko ezteiak aurten bete dituztenei aintzatespena, meza, bazkaria eta dantzaldia, beste batzuen artean. Bazkarian gizonezko nahiz emakumezko zaharrenak omendu zituzten: Cesar Aparicio Marin eta Asun Etxeberria Elizalde, 92 urtekoak biak.

TXINTXARRI

Bi kulturak, batera

Semblante Andaluz elkarteak XIX. Aste Kulturala ospatu zuen hilaren 7tik 12ra. Sevillanak, rebujitoa eta hegoaldeko keinuak ez dira falta izan, baina Euskal Herriko beste batzuekin lotzeko ahalegina egin dute, eta bizilekua ezagutzekoa ere bai: Lasarte-Oriaren historiari buruzko solasaldia eman zuten Txema Valles, Julian Sagardia eta Jesus Mari Egizabalek.

Sariak eskuratu asmoz, urrezko ferraren bila ibiliko dira bezeroak

Ferraren bila kanpaina jarriko du martxan aurten ere Aterpeak; egitasmoa antolatzen duen bigarren urtea da

Txintxarri

Hilaren 17tik abenduaren 6ra, Ferraren bila kanpaina abiatuko du Aterpea merkatarien elkarteak. Lasarte-Oriako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin prestatu du egitasmoa. Urrezko ferrak aurkitu beharko dituzte kanpainarekin bat egingo duten herritarrek; horiei argazkiak atera eta sare sozialetan partekatu beharko dituzte sarien zozketan parte hartzeko. Aterpeak 2.000 euro banatuko ditu erosketa txarteletan; elkartea osatzen duten establezimenduetan erabili beharko dituzte horiek irabazleek.

Egitasmoak hiru asteko iraupena izango duenez, hiru multzotan banatu dituzte establezimendu parte hartzaileak. Hilaren 17tik 23ra zenbait komertziok jarriko dute urrezko ferra erakusleihoan ikusgai. 24tik 30era egingo dute bigarren taldekoek, eta hilaren 31tik abenduaren 6ra hirugarrenekoek.

Ferrak topatu, argazkiak atera eta sare sozialetan (Instagram eta Facebook) partekatu beharko dituzte bezeroek. Merkatarien sare sozial kontuetako baten jarraitzaile izatea ezinbestekoa da, eta profil hori bera eta bi lagun izendatu beharko dituzte argazkian. Aterpeako ordezkariek ohartarazi dute parte hartzailearen profilek irekiak izan behar dutela eta ez pribatu, zozketa egiten duten egunera arte gutxienez.

Herritarrek kanpainan parte hartu dezaten nahi du Aterpea merkatarien elkarteak, eta Lasarte-Oriako Udalak ere dei egin die herriko komertzioa babestu eta egitasmoarekin bat egin dezaten; merkatarien elkarteari egiten duen lana ere eskertu dio.

Informazio gehiago jaso edota oinarrien berri izan nahi duenak, honako atari hau bisita dezake: *www.aterpea.es.*

UDAL HAUTESKUNDEAK 2023

IDO PHOTOGRAPHY

Primarioetara aurkeztu da Tolosa

Miguel Angel Tolosak bere burua aurkeztu du datozen udal hauteskundeetan Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiko alkategai izateko. Barne prozesua gaur hasiko da, Bat Egin markapean. Militanteek bermatu beharko dute hautagaitza hori. Bere burua politikari profesionaltzat ez duen arren, "ilusionatuta" dago Tolosa, "Lasarte-Oriaren alde" lan egiteko. "Ikuspegi sozial batetik gure herriak behar dituen hobekuntzak bultzatuko ditut", adierazi du. Udalerria "aurrerakoi, berdinzale, feministago eta ekologistagoa" izatea helburu duela gehitu du. Uruguaitarra jaiotzez, 2015ean hasi zen Podemosen lanean, finantza kontuen bueltan. Udal korporazioan aurtengo maiatzean sartu zen, Tania Rodriguezen ordez.

Ostadar SKTk Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoieko sortzaileak omenduko ditu aurten, 25. aldian. TXINTXARRI

Lasarte-Oria Bai! 25. Kros Herrikoia badator

Ostadar SKTk Lasarte-Oria Bai! herri kroseko sortzaile diren Imanol Bardaji, Gabi Valin, Joxean Alberdi eta Roberto Rebe omenduko ditu 1 dortsala emanaz. Hilaren 30ean probaz gain, bestelako ekimenak ere izango dira 25. urteurrena ospatzeko

Txintxarri

Ostadar SKTk Lasarte-Oria Bai! 25. Kros Herrikoiaren aurkezpena egin du. Bi urteko atzerapenarekin bada ere, hilaren 30ean, patinatzaile, korrikalari eta Ipar Martxako partideak berriro izango dira gure herriko kaleetan barrena lehiatzen. Korrika Festa ere izango da.

Urte berezia da gainera, probaren 25. urteurrena ospatuko dute eta horregatik, 1 dortsala sortzaileek eramango dute: Imanol Bardaji, Gabi Valin, Joxean Alberdi eta Roberto Rebe.

"Krosa sortu zuten pertsonak omentzeko urte aproposa dela uste dugu. Orain dela 25 urtetik gora Imanol Bardaji, Gabi Valin, Joxean Alberdi eta Roberto Rebe elkartu ziren ideia batekin, Lasarte-Orian kros herrikoi bat antolatzea. Izan zirelako gara egun 25 edizio bete dituen krosa, eta nolabait, bere momentuan izan zuten ausardia txalotu nahi dugu", azaldu zuten aurkezpenean.

Eta herriari bizia emateko hainbat ekitaldi berezi ere izango dira egunean zehar. Lasarte-Oriako txistulariek diana joko dute 09:00etatik 10:15era herria esnatuz. Eguerdian, Oaintxe in deu! txarangako kideek herriko kaleak alaituko dituzte. Arratsaldean 18:00etatik 19:30era triki-poteoa izango da.

"Krosa kirol proba bat baino gehiago da, herrian sustraitua dagoen ekitaldia da, herriko eragileekin herriarentzat antolatzen duguna. Urtero giro berezia sortzen da eta aurten giro hori sortzen laguntzea da asmoa".

Azkenik, aurrerago iragarriko duten ezusteko bat ere izango dela jakitera eman dute.

Aldaketak

Probaren antolatzaileek azaldu dutenez, Geltoki kalean egin diren lanak direla eta, moldaketa batzuk egin behar izan dituzte ibilbidean.

Ohiko irteera puntua Frutas Ruiz parean egoten zen, baina lanak medio, metro batzuk aurreratu behar izan da hasiera arkua eta Ostadar SKTren egoitza ondoan hasiko da lasterketa.

Aldaketa horrekin galtzen diren metroak, berriz, Txartel pareko industri-gunera sartuta berreskuratuko dira.

Herriko elkarteko egoitzaren aurrean bilduko dira, beraz, hilaren 30ean, kros herrikoiko partaideak. Txistulariek eta dantzariek agurra egin eta 10:28an patinatzaileak aterako dira; jarraian korrikalariak eta azkenik, ipar martxako lehiakideak.

Ostadar SKTren webgunean inskripzioa egin ez duten pertsonek hilaren 19tik 28ra Manuel Lekuona Kultur Etxean izena emateko aukera izango dute. Astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara izango da irekia. Azken momentuan parte hartzea erabakitzen dutenek lasterketa bezperan, Michelin kirol gunean 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era edo lasterketa egunean bertan, 09:00etatik 10:00etara egin ahalko dute

Aurretik eginez gero, 8 eurokoa da prezioa Ostadarreko bazkideentzat eta 12koa gainerako guztientzat; lasterketa egunean, berriz, guztiek 20 euro ordainduko dute.

Partaideek lasterketa bezperan edo lasterketa egunean kamiseta teknikoa jasoko dute Michelin kirol gunean eta Lasarte-Oriako taberna, jatetxe, okindegi eta bestelako komertzioek eskainitako oparien zozketetan parte hartzeko aukera ere izango dute.

Korrika Festa

12:15ak aldera, berriz, herriko gazte eta haurren txanda izango da. Mila bat parte hartzaile aurreikusten ditu Ostadar SKTk.

1.200 eta 100 metro arteko lasterketan egingo dituzte adinaren arabera eta horretarako sei maila ezberdinetan bereiziko dira: kadeteak (2007-2008 urteak), infantilak (2009-2010 urteak), 2017an jaiotakoak, 2015-2016an jaiotakoak, 2013-2014an jaiotakoak eta 2011-2012an jaiotakoak.

Korrika Festan parte hartu nahi duten haur eta gaztetxoek hilaren 19ra arte itxaron behar dute izena emateko. Manuel Lekuona Kultur etxean banatuko dira dortsalak eta 5 euroko prezioa izango du izena emateak. Trukean kamiseta tekniko bat eta lasterketa amaitzean, bestelako opariak izango dituzte.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Ostadar SKT - Hernani CD
Igandea. 13:15. Michelin kirol gunean.

GORENGOEN MAILA

Ostadar SKT - Hondarribi
Larunbata. 18:30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONAL 1. MAILA

Ostadar SKT - Urola KE B
Larunbata. 16:35. Michelin kirol gunean.
Lazkao KE - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 18:00. Arizti Handi, Lazkaon.

OHOREZKO JUBENIL MAILA

Martutena KE - Ostadar SKT
Larunbata. 17:30. Martutene, Donostian.

JUBENIL 1. MAILA

Texas Lasartearra CF - Ikasberri KE A
Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT B - Martutene KE B
Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO KADETE MAILA

Euskalduna SD - Ostadar SKT
Larunbata. 12:00. Ubitarte, Andoainen.

KADETE 1. MAILA

Ostadar SKT C - Mundaiz SDC
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
Urnieta KE B - Ostadar SKT B
Larunbata. 12:00. Urnietan.
Arrupe Chaminade CD C - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 10:30. Martutene, Donostian.

ARETO-FUTBOLA

1. MAILA

TEEP Tolosala - Eguzki Arkupe Rehab.
Ostirala. 20:45. Uzturpe kirol., Tolosan.

2. MAILA

Eguzki ISU Leih. - Makax Gorka Margoak
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL MAILA

Laskorain ikastola - Eguzki AF
Igandea. 12:00. Laskorain ik., Tolosan.

SASKIBALOIA

SENIOR 1. MAILA

Okela Maialen Añorga KKE - Ostadar SKT
Larunbata. 20:00. Benta Berri kirol., Donostian.

SENIOR 3. MAILA

Yesilan Kurkubi Lezo SKT - Ostadar SKT
Igandea. 11:45. Beko Errota kirol.,Lezon.

JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

Ostadar SKT - CD Internacional
Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

JUNIOR PARTAIDETZA

Ostadar SKT - ZAST 2005 ZKE
Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kirol.
Inar Optika ISB - Ostadar SKT (atzeratutako partida)
Larunbata. 16:00. Azkoitiako kiroldegian.

KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA

Carr. Amute Hondarribia - Ostadar SKT
Igandea. 16:00. Hondartza kiroldegia, Hondarribian.

PILOTA

ESKUZ BANAKA, ALEBIN1. MAILA

Hernani - Intza (Jauregi)
Larunbata. 11:00. (5. partida) Hernaniko pil.
Hernani - Intza (Huizi)
Larunbata. 11:00.(6. partida) Hernaniko pil.

ESKUZ BANAKA, ALEBIN 2. MAILA

Intza (Maiz) - Intxurre
Larunbata. 16:15. (1.partida) Michelin kirol.
Intza (Iparragirre) - Alde Zaharra
Larunbata. 16:15. (2.partida) Michelin kirol.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA, SENIOR

Udapa Jatorkide Senior - Ostadar SKT
Igandea. 11:00. Aranalde kirol., Gasteizen.

EUSKAL LIGA, SENIOR 2. MAILA

Ekialde - Ostadar SKT
Larunbata. 17:00. Ekialde kirol., Gasteizen.

JUBENILA

Arizmendi - Ostadar SKT
Larunbata. 11:30. Ibarra kirol., Aretxabaletan.

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA, OHOREZKO B MAILA

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak KE - AVK Bera Bera
Igandea. 11:50. Michelin kirol gunean.

16 ETA 18 URTEZ AZPIKOA

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak KE - Arrasate
Larunbata. 10:00 eta 10:15. Asti, Zarautzen.

10 ETA 12 URTEZ AZPIKOA

Zarautz Beltzak KE taldeeko Eskolako kideek Topaketa izango dute.
Igandea. 10:30. Landare, Hernanin.

MENDIA

IBILBIDEEN EGUNA

Buruntzaldeko 14. Ibilbideen Eguna antolatu dute lurraldeko udalek.
Igandea. 09:00-14:00. Buruntzaldean zehar.

Boleibola, Lasarte-Orian hazten doan zaletasuna

Ostadar Boleibola atalak hiru urte daramatza lanean. Talde bakarra izatetik zazpira igaro da denbora tarte horretan. Euskal Ligatik Gipuzkoako Infantil Mailara, lehiaketa ezberdinetan parte hartuko dute kirol elkarte urdin-beltzeko kideek aurten

Txintxarri

Ostadar Boleibola saileko kideak denboraldi berriari "ilusioz beteta" aurre egingo diote; zazpi talde izango dituzte lehian. Leire Vega ataleko koordinatzailearekin solasean "ezusteko ederra" eraman dutela onartu du: "2019an senior taldearekin hasi ginenean ez genuen espero hain azkar haztea. Zazpi talde genituela aurreikusi genuenean, guztia egiteko zegoen eta saileko kideak prestu agertu ziren laguntzeko. Horri esker, aurrera eraman ahal izan dugu erronka".

Iaz hiru mailatan lehiatu zen Ostadar: Euskal Liga senior kategorian eta Gipuzkoako mailako Jubenil eta Kadete Mailan. Horiek mantendu eta kategoria berrietan izango da aurten Lasarte-Oriako kirol elkartea. Euskal Ligan beste ordezkari bat izango dute urdin-beltzek, mutilen taldea. Gipuzkoa mailan, berriz, kadete mailako bigarren taldea sortu da eta infantil mailan ere bi osatu dituzte.

Hil honetan zehar jokatuko dituzte guztiek lehen jardunaldiak. Senior mutilen taldeak dagoeneko egin du debuta (ikus zatidura). Hilaren 15ean Euskal Ligako senior 2. maila hasiko da, baita Gipuzkoako Jubenil mailako lehen fasea ere; kadete eta infantilak, berriz, 22an aterako dira kantxara.

Lehen neurketa jokatu du Ostadar SKTren Euskal Ligako taldeak. TXINTXARRI

Euskal Ligako taldea hasi da lehian

Euskal Ligako denboraldiari ilusio handiarekin ekin zioten Ostadarreko Boleibol saileko mutilek Maialen Chourraut kiroldegian. Iratxe Moraren jokalarientzat erronka berria zen; estreinakoz jokatu zuen taldeak. Aurrean Euskal Ligan CV Sestao izan zuten herriko elkarteko kideek.

Urdin-beltzen lehen partida izateko, itxura ona eman zuten eta lehiakor izan ziren, batez ere, bigarren setean. Emaitza ez zen aldeko izan, ordea; 0-3 (15-25, 17-25 eta 14-25) gailendu ziren sestaotarrak.

Bigarren jardunaldian, Udapa Jatorkide senior taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak igandean, Gasteizeko Aranalde kiroldegian.

Helburu ezberdinak

Boleibol ataleko taldeak Maialen Chourraut kiroldegian zein Michelin kirol gunean lanean dihardute. Neurketak, berriz, kiroldegian zein Loidibarren pilotalekuan jokatu dituzte.

Vegak jakitera eman duenez, abuztuaren 22an hasi zuten denboraldiaurrea senior taldeek; gainerako mailek, aldiz, irailean.

Guztiek helburu ezberdinak dituztela ere adierazi du. Senior mutilen taldeari dagokionez, jokatzea da xedea. "Ekipo berria da. Gipuzkoa mailan ez dago ligarik eta Euskadikoan lehiatu beharko dira. Orain arte, boleibola emakumeen kirola izan da. Hala ere, mutilez osatutako gero eta talde gehiago dago eta gurea izango da horietako bat", nabarmendu du Vegak.

Euskal Ligako 2. mailan, berriz, mantentzea izango dute buruan kideek. "Taldea aldatu da; jokalari berriak batu dira, kanpoko jendea gehiena. Kide berriei esker, maila igo dela esan daiteke eta mantentzeko borrokatuko dira. Hala ere, lehiaketan zehar ikusiko da".

Jubenil eta kadeteek harrobi lana egingo dute eta infantilei dagokionez, kirola ezagutzeko modu bat dela adierazi du: "Kirolarekin eta taldearekin lehen harremana egiteko balio du. Ezjakintasuna dago: ate irekietan partidak jokatzen ote genituen galdetu ziguten, esate baterako. Gazteek beste kirol bat probatzeko aukera ematen dugu. Agian, gero, beste bat aukeratuko dute. Geratzen badira eta harrobia sendotzen bada, ongietorriak izango dira".

Sailaren hedapenarekin pozarren dago Leire Vega: "Jende berri asko eta, batez ere, gaztea dago taldeetan. Asko kanpotik etorritakoak dira".

Bat-bateko handiagotzearen zergatia argi du: "Hiru denboraldi daramatzagu lanean. Jendea partidak ikustera etorri da eta gure taldeen berri izan dute. Horrez gain, Asier Acuriola seniorretako entrenatzailea ezaguna da boleiboleko munduan eta horrek ere kanpoko jendea erakarri du".

Guztia antolatzea lan ederra izan dela onartu du eta horregatik, talde teknikoa osatzen duten kideei eta Acuriolari eskertua dago. "Entrenatzaileak saileko taldeetako kideak dira, mutilen seniorreko prestatzailea izan ezik. Eurek aurkitu dute nor entrenatu, epaile bat ezagutzen zuten, Iratxe Mora eta berak eramango du ekipoa. Acuriola, berriz, laguntza handia da guretzat. Boleibol munduari buruz guztia erakutsi dit eta digu", adierazi du.

Beste aukera bat

Era berean, Lasarte-Orian kirol eskaintza zabaldu ahal izateaz harro dago: "Futbola eta saskibaloia beti entzun dira, baina beste aukera batzuk egotea ere ongi dago. Boleibola da horietako bat".

Horregatik, herritarrak neurketak ikusi eta boleibolaz gozatzera gonbidatzen ditu Ostadar Boleibola saileko ordezkariak.

Jubenil 2. Mailako bikotea, ederki Ezker hormako txapelketan

Beñat Olazabalek eta Pedro Eloseguik osatzen duten bikoteak eroso jokatu eta garaipena erdietsi du

Txintxarri

Intza Kirol Elkarteko Jubenil 2. Mailako bikoteak Hernani 3 garaitu zuen hilaren 8an Loidibarren pilotalekuan jokatutako neurketan. Jubenil 1. Mailako gazteek, berriz, ezin izan zuten jokatu Haritza Diez de Gereñuk eskuetan min zuelako.

Partida gogorra espero zuten arren, Beñat Olazabal eta Pedro Elosegui bikoteak erosotasunez irabazi zuen partida (22-9). Hernani 3 izan zuten aurrez aurre eta Lasarte-Oriako pilotariak ederki jardun ziren.

Neurketa hasieratik sendo jokatu zuten Intzako pilotariek. Ez zuten hutsik egin eta atzean jokatzera behartu zuten Hernani. Era horretara, 15-1 aurreratu ziren markagailuan. Ostean partida orekatu zen. Hala ere, hernaniarrek ez zuten etxekoen garaipena arriskuan jarri.

Jose Felix Solano prestatzailea pozarren dago denboraldi hasieran bi pilotariek erakutsitako jarrerarekin: "Oso ondo jokatzen ari dira".

Asteburu honetan, kirol elkarteko txikiak hasiko dira lehian. Alebin mailako lau pilotari buruz burukoan arituko dira.

Intzako 2. mailako jubenilak, Hernani 3 bikotearen aurka. TXINTXARRI

ZORION AGURRAK

Manolo
Zure emazte eta semearen partez, zorionak! Orain arte bezain guapo jarraitu!

Andrea
Zorionak, mamasita!! Todo nitido?? Ondo-ondo ospatu 24ak!! Muxu asko familiaren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- *txintxarri.eus/zorionagurrak.*
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali *txintxarri@ttakun.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu zorion agurrak.

OHARRA

Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data
txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora
edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 14	GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 15	DE MIGUEL
IGANDEA, 16	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 17	DE ORUE
ASTEARTEA, 18	DE MIGUEL
AZTEAZKENA, 19	LASA
OSTEGUNA, 20	GIL

EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINTZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat dut Benidormen, eta alokatzeko eskaintzen dut irail eta urrian, hamabost egunez edo hilabete osoz. Harremanetarako zenbakia, 677 35 18 35 (Lourdes)

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratudun apartamentua alokagai. 60 metro karratudun loratategia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Irailera arte alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU

Gela bat alokatzen dut Lasarte-Orian, erdialdean, partekatutako etxe batean. Harremanetarako zenbakia: 666 32 05 20.

LANA

ESKAINTZA

Unibertsitateko ikasketak egiten ari den edota amaitu dituen pertsona behar dugu, DBHko 3. mailako ikasle bati eskola partikularrak emateko. Astean hiru egunetan beharko genituzke eskolak eta azterketa garaian eskola extrak. Interesatuek honako telefono zenbakira dei dezakete: 630 73 29 49.

15 urteko neska bati euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako zenbakia, 631 57 15 40 (Arratsaldez deitu).

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

8 urteko neska bat ikastolara eramateko pertsona bat behar da. Ikasturte osoa. Harremanetarako zenbakia: 607 35 87 15 (WhatsApp)

ESKARIA

Kurtsoan zehar haurrak arratsaldez zaintzeko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia, 695 18 41 79.

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

SALEROSKETA

SALDU

Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomikarako... Harremanetarako zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldez. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

txintxarri www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:
Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Endika Mertxan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

LASARTE-ORIA Aurkezpen ekitaldia. Gazte Koordinadora Sozialista (GKS) eratu zenetik hiru urte eta erdi bete diren honetan, proiektu hori Lasarte-Orian garatu nahi du gazte talde batek, eta iragarri du herri mailako eragilea bihar aurkeztuko duela, hilak 15, Gaztelekuan (Jaizkibel plaza, 14), 11:30etik aurrera. Bertako kideek adierazi dute "antolakuntzarako grina" piztu nahi dutela belaunaldi berriengan, "are gehiago azken urteotako krisiek eragindako bizi eta lan baldintzak okertu izanaren ostean". GKSren helburu nagusiak, zehaztu dutenez, gazte langileen eta, oro har, langileriaren bizi baldintzak hobetzea dira.

Horri guztiari eta beste hamaika gauzari buruz jardungo dira antolatzaileak biharko aurkezpen ekitaldian. Lasarte-Oriako gazteak eta Buruntzaldeko gainerako herritakoak gonbidatu dituzte jarduera horretara bertaratzera.

Hilaren 15ean, Lasarte-Oriako Gaztelekuan, 11:30ean.

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Dantza
Nerea Martinez dantzariak *Besarkada* lanaren emanaldia egingo du, XVIII. Dantza Zirkuituaren barruan. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 16

LASARTE-ORIA Zinema
Nire zirkua filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
La vida padre filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 19

LASARTE-ORIA Opera
Wolfgang Amadeus Mozart konpositore klasikoaren *La flauta mágica* obra proiektatuko dute. Sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute. Danok Kide elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatutako emanaldia da.
Kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Literatura
Lasarte-Oriako Irakurle Txokoko kideek ikasturteko lehen saioa egingo dute: Joseba Sarrionandia idazlea etorriko da talde horretako kideekin solastera.
Antonio Mercero gunea, 19:00etan.

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Euskararen jaia
Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatzen duten Euskararen 10. Maratoiak hartuko du herria.
Okendo plaza, 08:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Kontzertua
Euskal Herriko Andaluziar Etxeen Federazioak (FARAE) kontzertu bat antolatu du. Los de Sierra Morena taldeak egingo du emanaldia. Gonbidapena behar da aretora sartzeko.
Kultur etxea, 18:30ean.

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Antzerkia
Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatzen duten Euskararen 10. Maratoiak hartuko du herria.
Okendo plaza, 08:00etatik aurrera.

ASTEARTEA 25

LASARTE-ORIA Literatura
Olga Serrano herritarrak *Juguetes de niño sádico* eleberria aurkeztuko du jendartean. Sarrera, doan.
Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 19:00etan hasita.

ASTEAZKENA 26

LASARTE-ORIA Literatura
Haurrentzako ipuinen saio bat egingo dute Kontu Kantoiko lagunek. Sarrera, doan.
Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 17:30etik aurrera.

OSTEGUNA 27

LASARTE-ORIA Literatura
Alaine Agirre idazleak aurkezpen solasaldi bat egingo du 14 eta 18 urteko nerabeentzat. Sarrera, doan.
Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 18:30ean hasita.

LASARTE-ORIA Literatura
Okendo Zinema Taldeak urriko bigarren proiekzioa egingo du: Modelo 77 filma proiektatuko du. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 22:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

'Nire zirkua' Igandea 16: 17:00.

'La vida padre' Igandea 16: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

'Mia and me: The Hero of Centopia' Igandea 16: 17:00.

'Argentina 1985' Igandea 16: 19:30. **Astelehena 17:** 19:30, 22:00.

HERNANI

BITERI

'Azken bidaia' Ostirala 14: 19:00.

'Fire of love' Ostirala 14 - Igandea 17: egunero pase bat, 22:30ean.

'El colegio de los animales mágicos' Larunbata 15: 16:30. **Igandea 16:** 16:30.

USURBIL

URBIL

'Smile' Ostirala 14: 16:55, 19:45, 22:30. **Larunbata 15:** 16:55, 19:45, 22:30. **Igandea 16:** 16:55, 19:45, 22:30.

'Los renglones torcidos de Dios' Ostirala 14: 16:10, 18:30, 21:55. **Larunbata 15:** 16:10, 18:30, 21:55. **Igandea 16:** 16:10, 18:30, 21:55.

'Halloween ends' Ostirala 14: 16:30, 19:15, 20:45, 22:00. **Larunbata 15:** 16:30, 19:15, 20:45, 22:00. **Igandea 16:** 16:30, 19:15, 20:45, 22:00.

'Piggy' Ostirala 14: 17:20, 19:50, 22:20. **Larunbata 15:** 17:20, 19:50, 22:20. **Igandea 16:** 17:20, 19:50, 22:20.

'En los márgenes' Ostirala 14: 16:25, 22:00. **Larunbata 15:** 16:25, 22:00. **Igandea 16:** 16:25, 22:00.

'Tadeo Jones 3: La tabla esmeralda' Ostirala 14: 16:05, 18:25. **Larunbata 15:** 16:05, 18:25. **Igandea 16:** 16:05, 18:25.

'Modelo 77' Ostirala 14: 21:45. **Larunbata 15:** 21:45. ***Igandea 16:*** 21:45.

'Ticket to paradise' Ostirala 14: 19:10. **Larunbata 15:** 19:10. ***Igandea 16:*** 19:10.

LABURPENA

'La vida padre'
Zuzendaria: Joaquin Mazon. **Gidoia:** Joaquin Oristrell. **Argazkia:** Angel Iguacel. **Musika:** Vicente Ortiz. **Ekoizleak:** Mod Producciones, Kowalski Films. **Herrialdea:** Espainia (2022). **Iraupena:** 92 minutu. **Aktoreak:** Karra Elejalde, Enric Auquer, Megan Montaner, Lander Otaola, Maribel Salas, Gorka Aginagalde, Yanet Sierra, Manuel Burque, Pablo de Santos, Unax Hayden, Javier Merino, Karmele Aranburu.

Familia kontuak, su txikitan

Jatetxe batean chef lanetan dabil Mikel (Enric Auquer): gaztea da, eta proiektu zein erronka ugari ditu esku artean. Dena aldrebestuko zaio, ordea, duela 30 urte ezer esan gabe alde egin zuen aita, Juan (Karra Elejalde), ustekabean itzultzen denean.

Esku oneko sukaldaria eta talentu handikoa izanagatik, Mikelen jatetxearen etorkizuna kili-kolo dago, ez direlako nahikoa bezero joaten. Une profesional zail hori jaso berri duen ezustekoarekin uztartu beharko du, familia kontuak su txikitan egosi. Bere aita ez da etxean geldi egoten den horietakoa, semearen ikuspuntu, ideia, sentimendu eta bizipenak irauliko dituen zurrunbilo geldiezin bat baizik.

Bien arteko harremanaren gorabeherak dira Joaquin Mazon zuzendariaren filmaren ardatza. Joaquin Oristrell-ek idatzi du gidoia, eta jatorrizko ideia Olatz Arroyok eta Mazonek berak garatutakoa da. Argazki zuzendaria Angel Iguacel izan da, eta aktoreen artean dago, besteak beste, Karra Elejalde gasteiztarra.

Urriak 22 | 23

laguntza beharko dugu!

Laguntza txandak antolatu ditugu:

- Txosnan
- Otorduren bat zerbitzatzen
- Photocallean argazkiak egiten

- Bete formularioa
- Ttakuneko bulegora etorri
- Deitu 943-371448
- maratoialdia@gmail.com

10 EUSKARAREN MARATOIALDIA

Eskuratu kamiseta

10 euro haurrak

13 euro helduak

sarean edo ttakuneko bulegoan

Maite BETELU aterpea

- Gestoria
- Aholkularitza
- Inmobiliaria zerbitzuak
- Aseguruak
- Etxebizitzen administrazioa

10 EUSKARAREN MARATOIALDIA Badator Euskararen Maratoia!

Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943-36 48 86 • www.mbetelu.com